# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2024ko abenduaren 26a | 148. ZK.

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-24/GPER-00014. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2024rako plantilla organikoa (2. or.).

—11-24/GPER-00014. 2023ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari ziren funtzionarioen zerrenda (5. or.).

—11-24/CCNG-00003. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita telelanaren bidez jarduten diren Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileen lanaldiari buruzko araua (8. or.).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# 11-24/GPER-00014. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2024rako plantilla organikoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2002ko abenduaren 16an, talde parlamentarioei laguntzaileak emateko erabakia onetsi zuen Parlamentuko Mahaiak. Talde horiek eskatuta, taldeei giza baliabide osagarriak emateko aukera aztertu da, talde parlamentarioen laguntzaileak amatasun- edo aitatasun-baimen ordaindua daukatenean (11-24/GPER-00023); hartara, Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bana egin dute.

Zerbitzu Orokorretako buruak, berriz, plantilla organikoari buruzko txostena egin du, eta bertan jaso da zer aldaketa egin beharko liratekeen plantillan talde parlamentarioei kasu horietan giza baliabide osagarriak emateko, bai eta Zerbitzu Orokorrei atxikitako lanpostu baterako proposatu den aldaketa ere.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikuluak xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren.

Horiek horrela, ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoari dagokionez egin duen proposamena (11-24/GPER-000014), Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.1 artikuluarekin bat eta Langileen Batzordeak txostena egin ondoren, honako hau ERABAKI da:

**1.** Bigarren paragrafo bat sartzea talde parlamentarioei laguntzaileak emateko Mahaiaren erabakiaren 1. apartatutan, honako eduki hau, edo gisakoa, izanen duena:

"Halere, salbuespenez, beste laguntzaile bat izendatzea baimenduko da, epe jakin baterako baimendu ere, egoera horrek diraueino (laguntzaile hori izendatzen denean hasierako eta amaierako datak zehaztu beharko dira), baldin eta laguntzaileak amatasun- edo aitatasun-baimen ordaindua badauka".

**2.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2024rako plantilla organikoa onestea, zeinean honako aldaketa hauek jasotzen baitira, 2023rako plantillaren aldean: azkeneko foru-hauteskundeetatik sortu zen egungo osaeraren arabera talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek egun duten izena, talde parlamentarioen laguntzaileei buruzko azalpen-oharraren testu berria, baimentze aldera ezarritako kasuetan baliabide osagarriak ematea, eta mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu bat sartzea, C mailakoa, Zerbitzu Orokorretan eta, ondorioz, mantentze-lanetako laguntzaile-lanak egiten dituen gelazain-lanpostua azkentzea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta talde parlamentarioen eledunei, legelari nagusiari, Zerbitzu Orokorretako buruari eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari jakinaraztea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

a) **Funtzionarioak**

| | Kop. | *Maila* | Izendapen askea | Esklusibotasuna | Baterazintasuna | Lanpostuko osagarria | Mailako osagarria | Berariazko osagarria | Arrisku berezia | Zuzendaritza postuko osagarria* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ***IDAZKARITZA NAGUSIA*** | | | | | | | | | | |
| Legelari nagusia (1) | 1 | A | X | 55 | | 98,30 | | 35 | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza*** | | | | | | | | | | |
| Administrari burua (2) | --- | C | X | | | 62,68 | 12 | | | 10 |
| Administraria | 2 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***Prentsa Atala*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (3) | -- | | | | | | | | | 20 |
| Komunikazioko teknikaria | 1 | A | | | 35 | 51,30 | | | | |
| Ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikaria (4) | 1 | A | | | 35 | 51,30 | | | | |
| Administrariak (4) | 1 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***Protokolo Atala*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (3) | -- | | | | | | | | | 20 |
| Protokoloko teknikaria (5) | 1 | B | | | 35 | 49,40 | | | | |
| Administraria (6) | 1 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| Protokoloko harremanetako idazkaria (7) | 1 | C | X | | | 62,68 | 12 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***ZERBITZU JURIDIKOAK*** | | | | | | | | | | |
| Legelaria | 5 | A | | 55 | | 81,30 | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***Kudeaketa Parlamentarioko Atala*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (3) | -- | A | | | | | | | | 20 |
| Administraria (4) | 5 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***ZERBITZU OROKORRAK*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (8) | 1 | - | X | 55 | | 61,30 | | | | |
| Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | 2 | B | | | 35 | 49,40 | | | | |
| Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala | 2 | C | | | | 56,50 | 12 | | 10 | |
| Gelazain nagusia (9) | --- | D | X | | | 53,00 | 15 | | | 10 |
| Gelazainak (10) (11) | 11 | D | | | | 53,00 | 15 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***ARGITALPENAK, ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (8) | 1 | - | X | 55 | | 61,30 | | | | |
| Itzultzaileak (12) | 5 | A | | 55 | | 35,30 | | | | |
| Transkribatzaileak (13) | 6 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista | 2 | B | | | 35 | 49,40 | | | | |
| Administraria (4) | 2 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***KONTU-HARTZAILETZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (8) | 1 | - | X | 55 | | 61,30 | | | | |
| Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | 2 | B | | | 35 | 49,40 | | | | |
| Administraria | 2 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***INFORMATIKAKO, IKUS-ENTZUNEZKOEN SISTEMETAKO ETA TEKNOLOGIAKO ZERBITZUA*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (8) | 1 | - | X | 55 | | 61,30 | | | | |
| Informatikako goi mailako teknikaria | 1 | A | | | 35 | 51,30 | | | | |
| Sistema informatikoetako erdi mailako teknikaria | 2 | B | | | 35 | 49,40 | | | | |
| ***Sistemen kudeaketarako atala*** | | | | | | | | | | |
| Atalburua (3) | -- | | | | | | | | | 20 |
| Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala | 1 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| Ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala | 1 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |
| | | | | | | | | | | |
| ***NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA*** | | | | | | | | | | |
| Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | 1 | B | | | 35 | 49,40 | | 35 | | |
| Administraria | 2 | C | | | | 62,68 | 12 | | | |

Oharrak:

* Zuzendaritza lanpostuko osagarria. A mailako soldatari erreferentziatua.

(1) Izendapen askea, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien eta Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoen artean. Plantilla organikoaren argitaratze-egunean, Nafarroako Parlamentuko legelari batek betetzen du.

(2) Izendapen askea, Parlamentuko administrarien kidegoko funtzionarioen artean.

(3) Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketarako deialdi bidez bete behar da.

(4) C1 mailako euskara-eskakizuna duen lanpostua.

(5) B1 mailako ingeles-eskakizuna duen lanpostua.

(6) Iraungi beharreko lanpostua, C1 euskara-eskakizuna duen administrari lanpostu bihurtuko dena.

(7) Izendapen askeko lanpostua, Legebiltzarreko Mahaiak izendatua Nafarroako Parlamentuko edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko C edo D mailako funtzionarioen artean.

(8) Parlamentuko teknikarien kidegoko funtzionarioekin bete behar da. Lanpostu honen ordainsariak A mailari dagokion soldata hartuko da oinarritzat gehi A mailako soldatari erreferentziatutako osagarriak.

(9) Legelari Nagusiak izendatua, gelazainen kidegoko funtzionarioen artean.

(10) Mantentze-lanetako laguntzailearen eginkizunak dituen lanpostua, iraungi beharrekoa.

(11) Iraungi beharreko bi lanpostu, zeinak B2 euskara-eskakizuna duten bi gelazain-lanpostu bihurtuko baitira.

(12) Itzulpen eta interpretazio eginkizunak dituen lanpostua.

(13) C1 mailako euskara-eskakizuna duten bi lanpostu.

**b) Behin-behineko langileak**

**Lehendakariaren kabinetea eta talde parlamentarioen laguntzaileak**

| Kop. | *Lanpostua* | *Izendapen askea* |
|---|---|---|
| 1 | Lehendakaritzako kabineteburua | BAI |
| 1 | Lehendakariaren idazkaria | BAI |
| 1 | Mahaiko kideen idazkaria | BAI |
| 13 | Talde parlamentarioen laguntzaileak(*):<br>3 UPN; 3 Nafarroako Alderdi Sozialista; 2 EH Bildu Nafarroa; 2 Geroa Bai; 1 Nafarroako Alderi Popularra; 1 Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa; 1 Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartea | BAI |

(*) Nafarroako Parlamentuak laguntzaile bat ematen dio talde parlamentario bakoitzari talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko. Halere, salbuespenez, beste laguntzaile bat izendatzea baimenduko da, epe jakin baterako baimendu ere, egoera horrek diraueino (laguntzaile hori izendatzen denean hasierako eta amaierako datak zehaztu beharko dira), baldin eta laguntzaileak amatasun- edo aitatasun-baimen ordaindua badauka.

**Arartekoa**

| Kop. | *Lanpostua* | *Izendapen askea* |
|---|---|---|
| 1 | Idazkari Nagusia – Aholkulari teknikoa | C |
| 3 | Aholkulari teknikoa | C |
| 1 | Kabineteburua | G |
| 1 | Nafarroako Arartekoaren kabinetea | G |

C: Nafarroako Arartekoaren erakundeko behin-behineko kargua - izendapen askea

G: Kabineteko behin-behinekoa - izendapen askea

# 1-24/GPER-00014. 2023ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari ziren funtzionarioen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.2 artikuluak xedatzen du Mahaiak urtero prestatuko duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren araberakoa, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio-egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2023ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda delaeta eginiko proposamena, ERABAKI DA:

**1.** 2023ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen honako zerrenda hau onestea:

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

| IZEN-ABIZENAK | MAILA | GRADUA | LANPOSTUA | ADMINISTRAZIO-EGOERA |
|---|---|---|---|---|
| **IDAZKARITZA NAGUSIA** | | | | |
| DOMÉNECH ALEGRE, SILVIA | A | 5 | Legelari Nagusia (1) | Jardunean |
| **Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza** | | | | |
| LASECA ESCUER, JOSÉ RAMÓN | C | 7 | Administrari burua | Jardunean |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |
| **Prentsa Atala** | | | | |
| MARTINEZ ITOIZ, JOSEBA | A | 4 | Behin-behineko atalburua<br>Komunikazio teknikaria | Jardunean |
| Lanpostu hutsa | A | | Ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikaria (2) | |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria (2) | |
| **Protokolo Atala** | | | | |
| MENA GARCÍA, TOMÁS | B | 6 | Protokoloko teknikaria (3) | Jardunean |
| ALDATZ PAYAN, GORKA | C | 7 | Administraria | Jardunean |
| (4) | C | | Protokoloko harremanetako idazkaria | |
| **ZERBITZU JURIDIKOAK** | | | | |
| CAÑAS PALACIOS, ISABEL | A | 2 | Legelaria | Jardunean |
| LAURENZ ITOIZ, MIKEL | A | 5 | Legelaria | Jardunean |
| Lanpostu hutsa | A | | Legelaria | |
| Lanpostu hutsa | A | | Legelaria | |
| **Kudeaketa Parlamentarioko Atala** | | | | |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria (2) | |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |

| IZEN-ABIZENAK | MAILA | GRADUA | LANPOSTUA | ADMINISTRAZIO-EGOERA |
|---|---|---|---|---|
| **ZERBITZU OROKORRAK** | | | | |
| ZOZAYA GARRALDA, SERGIO | B | 5 | Zerbitzuburua Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | Zerbitzu bereziak |
| PALMA ROMERO, FRANCISCA | B | 7 | Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | Jardunean |
| ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO | C | 7 | Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala | Jardunean |
| ESNOZ LARREY, ANA ISABEL | D | 7 | Gelazain nagusia | Jardunean |
| MARTÍNEZ ORDUÑA, Mª JESÚS | D | 7 | Gelazaina | Zerbitzu bereziak |
| MONEO MARTÍNEZ, Mª INÉS | D | 7 | Gelazaina | Jardunean |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazaina | |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazaina | |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazaina | |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazainak (5) | |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazaina | |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazaina | |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazaina | |
| Lanpostu hutsa | D | | Gelazaina | |
| | | | | |
| **ARGITALPENAK, ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA** | | | | |
| IRIARTE CILVETI, MIKEL | A | 6 | Zerbitzuburua Itzultzailea | Zerbitzu bereziak |
| ARANA BAREÑO, ANDER | A | 6 | Itzultzailea | Jardunean |
| ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER | A | 6 | Itzultzailea | Jardunean |
| IRAZUSTABARRENA BARRIOLA, AINHOA | A | 5 | Itzultzailea | Jardunean |
| IRIZAR APAOLAZA, ANDER | A | 6 | Itzultzailea | Zerbitzu bereziak |
| ALEGRÍA GOÑI, Mª CARMEN | B | 6 | Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista | Jardunean |
| ITURRI VILLANUEVA, ARACELI | B | 6 | Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista | Jardunean |
| MIGUÉLIZ GARCÉS, IÑAKI | C | 7 | Administraria (2) | Jardunean |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |
| ARANAZ MARTÍ, CARLOTA | C | 7 | Transkribatzailea | Jardunean |
| MARTÍN CESTAO, NEREA | C | 3 | Transkribatzailea (2) | Jardunean |
| MAULEÓN DE ANTONIO, FERNANDO | C | 4 | Transkribatzailea | Jardunean |
| SEVINÉ RUIZ, MERCEDES | C | 5 | Transkribatzailea | Jardunean |
| Lanpostu hutsa | C | | Transkribatzailea(2) | |
| Lanpostu hutsa | C | | Transkriptorea | |
| | | | | |
| **KONTU-HARTZAILETZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA** | | | | |
| VIDÁN ASTIZ, LAURA | B | 5 | Zerbitzuburua Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | Zerbitzu bereziak |
| ILUNDÁIN ILUNDÁIN, BEATRIZ | B | 4 | Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | Jardunean |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |
| Lanpostu hutsa | C | | Administraria | |

| IZEN-ABIZENAK | MAILA | GRADUA | LANPOSTUA | ADMINISTRAZIO-EGOERA |
|---|---|---|---|---|
| **INFORMATIKAKO, IKUS-ENTZUNEZKOEN SISTEMETAKO ETA TEKNOLOGIAKO ZERBITZUA** | | | | |
| MARZAL PARRA, Mª ASUNCIÓN | B | 7 | Zerbitzuburua Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria Informatikoetan | Zerbitzu bereziak |
| LOYOLA ERASO, PEDRO | A | 7 | Informatikako goi mailako teknikaria | Jardunean |
| ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO | B | 6 | Sistemen kudeaketarako behin-behineko atalburua Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria Informatikoetan | Jardunean |
| **Sistemen kudeaketarako atala** | | | | |
| Lanpostu hutsa | C | | Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala | |
| Lanpostu hutsa | C | | Ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala | |
| | | | | |

| **NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| BALDUZ GIL, JORGE | B | 4 | Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria | Jardunean |
| ECHEVERRÍA BELOQUI, MARÍA ANTONIA | C | 4 | Administraria | Jardunean |
| LAINEZ GIL, MAR | C | 7 | Administraria | Jardunean |

(1) Izendapen askea, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoen artetik. 2023ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuko legelari batek betetzen du, Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaz izendatuta.
(2) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.
(3) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.
(4) Izendapen askea, Legebiltzarreko Mahaiak izendatua Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko C edo D mailako funtzionarioen artean. 2023ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario betetzen du, Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaz izendatuta.
(5) Mantentze-lanetako laguntzailearen eginkizunak dituen lanpostua, iraungi beharrekoa eta mantentze-lanetako laguntzaile bihurtuko dena

# 11-24/CCNG-00003. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita telelanaren bidez jarduten diren Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileen lanaldiari buruzko araua

2021eko azaroaren 26an onetsi ziren Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileek lanaldia telelan-araubidean egiteari buruzko arauak.

Izandako esperientzia ikusita, komenigarria da arau horien zenbait alderdi aldatzea, erakundearen antolamendua eta funtzionamendua errazte aldera.

Beraz, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 2021eko azaroaren 26an onetsi ziren Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileek lanaldia telelan-araubidean egiteari buruzko arauen 3. artikuluaren 3. eta 6. apartatuak aldatzea, zeinak honela geratuko baitira idatzirik:

“3. Erakundearen lehendakariak barne-zirkular baten bidez ezarriko du zer aldi eta egun zehatzetan betetzen ahalko den lanaldia telelana eginez. Halaber, pertsona bakoitzari telelana egin ahal izan dezan ematen zaizkion egunak ezin izanen dira mugitu, unitatearen edo ekipoaren arduradunak onartzen duen salbuespenezko arrazoi justifikatu batengatik, eta idazkari orokorraren oniritziarekin, ez bada”.

“6. Salbuespenez, kontziliazioak edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoi batzuek ezinbestean sortutako egoeretan, telelana egiten ahalko da noiz edo noiz, unitatearen edo ekipoaren arduradunaren eta idazkari nagusiaren oniritziarekin".

**Bigarrena.** 3. artikuluari 7. apartatua gehitzea, zeina honela geratuko baita idatzirik:

“7. Telelana bertan behera gelditukoda, modu puntualean eta nahitaez, zerbitzuaren beharren ondorioz nahiz Kontuen Ganberak antolatutako prestakuntza-jarduerak egiten direnean.

**Hirugarrena.** Ebazpen honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Laugarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, jakinaren gainean egon dadin eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman dezan.

**Bosgarrena.** Ebazpen hau erakundearen webgunean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950